



## ANDOINGO UDALA

<b>ANDOINGO UDALAK DUEN TXOSNA UTZI AHAL IZATEKO, KONTUTAN HARTUKO DIREN IRIZPIDEAK.</b>	<b>CRITERIOS A CONSIDERAR PARA LA CESIÓN A TERCEROS DE LA TXOSNA PROPIEDAD DEL AYUNTAMIENTO DE ANDOAIN.</b>
<p>Ikusirik, Andoingo Udalak 2006. urtean txosna bat erosi zuela, Euskalduna futbol taldeak erabili izan duena Ubitarte futbol zelaiko taberna egin artean.</p> <p>Ikusirik, azken urteetan ez zaiola erabilerarik eman eta udalerrian badaudela hainbat behar jaietan eta herriko taldeek antolatzen dituzten hainbat kultur ekintzetan.</p> <p>Guzti hau kontuan harturik, Andoingo Udalak txosnaren erabilerarako herriko nahiz kanpoko eskaerak erregulatzeko eta uzteko, ondoren aipatzen diren irizpideak jarraituko dira:</p> <p><b>1.- Eskatzailea.</b> 3 eskatzaile mota bereziko ditugu:</p> <ol style="list-style-type: none"><li>1.1. Herriko elkarteak</li><li>1.2. Kanpoko elkarteak</li><li>1.3. Beste udalerrietako udalak</li></ol> <p><b>2.- Herriko elkarte</b> batek eskatzen duenean honako tramite hauek beteko dira:</p> <p>2.1. <b>Eskaera:</b> elkarte edo talde horretako ordezkari batek beteko du eskaera orria materiala behar baino 15 egun lehenago gutxienez. Eskaera orrian ezartzen diren datu guztiak beteko dira.</p> <p>2.2. <b>Fidantza:</b> 600 € ordainduko dira Udalak ondorengo banketxeetan dituen kontu korrante batean. Ordaindu duenaren agiria aurkeztu beharko da txosna jaso aurretik:</p> <p style="text-align: center;"><b>Bankuetxeak</b></p> <p style="text-align: center;">Kutxabank <b>2095 5022 18 1060735676</b> Caja Laboral-Euskadiko Kutxa <b>3035 0026 25 0260900009</b></p> <p>Fidantza hau, txosna bueltatu eta zerbitzu teknikoak egoera onean entregatu dela egiaztatuko duen aldeko txostena luzatu ondoren, itzuliko da.</p> <p>2.3. <b>Txosna jaso eta itzuli:</b> eskatzaileak berak jasoko eta garraiatuko du Bachiller pabelioitik behar den lekuraino. Berdin egingo du entregatzeko unean. Jasotzeko ordutegia, Zerbitzutako lan sailako langileen ordutegiaren barne (7:30etatik</p>	<p>El Ayuntamiento de Andoain adquirió una txosna el año 2006, la cual fue utilizada por el Euskalduna de fútbol hasta la construcción del bar del campo de fútbol Ubitarte.</p> <p>A la vista de que en los últimos años no se le ha dado uso, y que en el municipio existe necesidad, tanto en las fiestas de barrios como en las actividades organizadas por los grupos culturales.</p> <p>Teniendo en cuenta lo anterior, el Ayuntamiento de Andoain seguirá los siguientes criterios para la cesión a terceros de la txosna de su propiedad:</p> <p><b>1.- Solicitante:</b> distinguiremos 3 tipos de solicitantes:</p> <ol style="list-style-type: none"><li>1.1. Asociaciones locales</li><li>1.2. Asociaciones foráneas</li><li>1.3. Otros ayuntamientos</li></ol> <p><b>2.-</b> Cuando la solicitante sea una <b>asociación local</b>, se cumplimentarán los siguientes trámites:</p> <p>2.1. <b>Solicitud:</b> un representante de dicha asociación o colectivo deberá cumplimentar una solicitud como mínimo con una antelación de 15 días a la fecha en que deseen utilizar el material. En la solicitud se deberán cumplimentar todos los datos que se solicitan.</p> <p>2.2. <b>Fianza:</b> se depositará en una de las siguientes cuentas corrientes que el Ayuntamiento dispone la cantidad de 600 €. Se entregará el resguardo documental de haber realizado el depósito antes de proceder a la retirada de la txosna.</p> <p style="text-align: center;"><b>Entidades</b></p> <p style="text-align: center;">Kutxabank <b>2095 5022 18 1060735676</b>Caja Laboral-Euskadiko Kutxa <b>3035 0026 25 0260900009</b></p> <p>Esta fianza será reintegrada una vez devuelto el material en su punto de recogida y evacuado informe por los servicios técnicos en el sentido de que la devolución se ha realizado con el material en buenas condiciones.</p>



## ANDOINGO UDALA

13:30tara) egingo da. Horretarako, alde zurretik **Zerbitzutako lan sailako arduradunekin** adostuko da bai jasotzeko baita entregatzeko data eta ordua.

Txosna ez da ekintza burutu eta 4 egun baino beranduago itzuliko.

Andoingo auzoetako festen antolakuntzarako diru-laguntzaren banaketarako irizpideen 8. puntuak dionaren arabera, jaietan erabiliko udal **azpiegitura** jaiak bukatu eta bi egun buruan **itzuliko** da.

Etxeberrieta eta Goiburuko jai egunak segidan direnez, azpiegitura (mahai, aulki eta txosna) zuzenean pasa daiteke jai batzordeen artean, baldin eta azpiegituraren egoera berraztertuko duen inprimakia auzo bakoitzeko arduradun batek sinatu beharko duen ondoren Udalari aurkezteko. Inprimakia Bastero Kulturgunean egoitza duten Udalaren Kultura lansaileko bulegoetan edo udal Atari zerbitzuan aurkezteko.

2.4. Txosnaren egoera: Bachiller-tik ateratzerakoan eta bertara entregatzerakoan, bi aldeek baiezatzeko dute baldintza onean eta garbia dagoela.

Baldin eta taldeak erabili ondoren materiala iristen bada egoera txarrean, taldeak konpontzeko modukoa baldin bada (garbitzea, bisagrak edo torlojuak estutzea...) erabiltzaileari eskatuko zaio konpontzea. Konponketa kanpora atera behar baldin bada edota txosnaren atalen bat erabat berritu behar baldin bada, fidantza erabiliko da gastu horri aurre egin ahal izateko.

2.5. Talde batek hiru alditan entregatuko balu era desegokian eta material hori berritzearen gastuak fidantzaren kopurua gaindituko balu, txosna baldintza horietan erabiltzeko eskubidea galduko luke.

**3.- Herriko jaietan**, talde batek baino gehiagok eskatuko balu, honako prozedura jarraituko da:

3.1. Auzoetako jaietan, auzo bakoitzeko Batzordeak lehentasuna izango du besteen aurrean.

3.2. Herriko kultur, kirol eta aisialdiko taldeek lehentasuna izango dute herritik kanpoko beste edozein taldeen aurrean.

3.3. Herriko jaietan, eskatzaile guztiak beraien artean ez badira akordio batetara iristen Udalak zozketa egingo du.

4.- Auzoetako Jai batzordeek Udalaren diru-laguntza jasotzen dutenez, ez dute fidantzarik ordainduko, eta txosna itzuli ondoren, txosten teknikoek

2.3. Recogida y devolución de la txosna: la txosna será recogida del pabellón Bachiller y transportada por el propio solicitante hasta el lugar donde se vaya a hacer su uso. Se hará de idéntica forma para su devolución. La operación se realizará dentro del horario laboral de los trabajadores del departamento municipal de Servicios (7:30 a 13:30). Para ello, previamente, se deberá acordar con los **responsables del departamento de Servicios** la fecha y hora en la que se realizarán la recogida y la devolución de la txosna.

La txosna deberá ser devuelta antes de los 4 días siguientes a la celebración del evento.

En base al punto 8 de los criterios para la organización de las fiestas de los barrios y concesión de subvenciones, el desmontaje y **devolución del material** utilizado en las fiestas se realizará en los dos días siguientes a la finalización de las mismas y, dado que en el caso de Etxeberrieta y Goiburuko, sus días festivos son seguidos, la infraestructura (mesas, sillas y txosna) podrá traspasarse directamente entre las respectivas comisiones de fiestas, siempre y cuando un responsable de cada barrio firme el impreso que revise el estado de la infraestructura para después **presentarlo al Ayuntamiento. El impreso** se entregará en las oficinas del departamento municipal de cultura, Bastero Kulturgunea, o en el servicio Ataria del Ayuntamiento.

2.4. Estado de la txosna: tanto a la hora de recogerlo de Bachiller como a la hora de proceder a su devolución en el mismo lugar, ambas partes verificarán el buen estado y la adecuada limpieza de todo el material.

Si el material utilizado por el solicitante se devolviera en mal estado, y dicho estado fuera subsanable por el propio solicitante (limpieza, ajuste de bisagras o tornillos, etc.), se solicitará al mismo que proceda a su subsanación. Si para proceder a la subsanación o reparación de la txosna hubiera de recurrir a servicios externos o se hubiera de renovar el material deteriorado, se hará uso de la fianza con dicho objeto.

2.5. Si un solicitante entregara hasta en tres ocasiones el material cedido en mal estado y si el gasto de renovación o recuperación del material fuera superior al de la propia fianza, decaerá en su derecho de hacer uso de dicho material en las condiciones establecidas.

3.- Si para las **fiestas del pueblo** hubiera más de un grupo solicitante, se seguirá el siguiente procedimiento:



## ANDOAINGO UDALA

egoera txarrean iritsi dela esango balute, 2.4. puntuan aipatzen den prozedura jarraituko da. Konponketa kanpora atera beharko balitz, honen gastua, Andoaingo festen antolakuntzarako indarrean dauden irizpideen 2. puntuan azaltzen den prozedura jarraituko da. Diru-laguntzaren %40 erabiliko da fidantza gisa.

5.- Behin baimena eman ondoren, eskatzaileak honako dokumentazioa ekarri beharko du, beti ere erabilera eguna aurretik: Ttosnaren erantzukizun zibilaren poliza eta ordain agiriaren fotokopia. (eskatzaile guztiak)

6.- **Eskatzailea kanpoko talde bat** balitz, aurreko puntu guztiak beteko lituzke baina 2.2 puntuan aipatzen den fidantzaren orde, 1.000 € alokairu prezioa ordainduko luke, beti ere, alde aurretik. Hau da, utzi baino lehenago.

7.- **Eskatzailea beste udal bat** baldin bada, irizpide guztiak berdinduz gain, 2.2 puntuko fidantzari dagokionez, 800 €-tako fidantza eskatuko zaito.

8.- Horretaz gain, baldin eta txosna era desegokian iritsiko balitz, Andoaingo Udalaren kontu joango litzateke konponketa edo txukunketa martxan jartzea eta, ondoren, gastua fidantzatik kentzea edo udal horri fakturatzea.

3.1. En las fiestas de barrio, las Comisiones de cada barrio tendrán prioridad ante los demás.

3.2. Los grupos culturales, deportivos y de tiempo libre del municipio tendrán prioridad sobre cualquier otro grupo que no sea de Andoain.

3.3. Si en las fiestas patronales no se llegara a un acuerdo entre todos los solicitantes, el Ayuntamiento procederá a hacer un sorteo.

4.- Dado que las Comisiones de las fiestas de barrio reciben subvención del Ayuntamiento, éstos no abonarán fianza y, una vez devuelta la txosna, si los informes técnicos indicaran que se ha entregado en mal estado se procederá según se indica en el punto 2.4. Si para reparar la txosna hubiera de recurrirse a servicios externos se seguirá con el procedimiento indicado en el punto 2 de los criterios para la organización de las fiestas de Andoain. Se utilizará el 40% de la subvención como fianza.

5.- Una vez concedida la autorización, el solicitante deberá presentar la siguiente documentación antes de la fecha de uso de la txosna: póliza de responsabilidad civil y fotocopia del documento acreditativo del pago. (todos los solicitantes)

6.- Si el **solicitante** fuera un **colectivo foráneo**, le serán aplicables todas las condiciones referidas, excepto la establecida por el punto 2.2 con relación a la fianza, porque les será aplicado anticipadamente el precio de alquiler por importe de 1.000 €, es decir, previo a la cesión.

7.- Si el **solicitante** fuera **otro Ayuntamiento**, además de cumplir con el resto de criterios establecidos, con relación a la fianza del punto 2.2, deberá depositar la misma por una cuantía de 800 €.

8.- Además, si la txosna fuera devuelta deteriorada, será el propio Ayuntamiento de Andoain quien procederá a su reparación o recuperación, descontando a continuación el gasto producido de la fianza depositada o facturando el mismo directamente al Ayuntamiento solicitante.

2013.04.19ko Tokiko Gobernu Batzarrak onartua  
Aprobado en Comisión Gobierno de 19.04.2013

**2014.03.14ko Lekuko Gobernu Batzarrak Auzoetako irizpide orokorretan egindako aldaketak**

Modificaciones incorporadas desde los criterios generales de fiestas de barrio en Junta de Gobierno Local de 14.03.2014